
 <p>PASAIKO UDALA www.pasaia.eus</p>	<p>PASAIKO UDALERRIKO HAUR ETA NERABEEKIN ARITZEKO GIDALIBURUA</p> <p>GUÍA PARA TRABAJAR CON NIÑAS, NIÑOS Y ADOLESCENTES EN PASAIA</p>	 <p>PASAIKO HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO PLANA</p>	<p>IFK/CIF P2006900A Tel. 943 004330 Euskadi Etorbidea 61 20110 Pasaia</p> <p>HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO PLANA</p> <p>Tel. 943 004349 eastiasaran@pasaia.net</p>
--	--	--	--

Aldez aurretik lanerako adostu diren hainbat oinarri eta praktika ezarriko dira gidaliburu honetan, Pasaia Udalerako lanean diharduen eta/edo udalaren laguntza jasotzen ari den lagun edo lagun-talde orok erabil ditzan. Hortaz, nor bere jarduerari ekin aurretik, Udaleko sailen baterako jardungo duten guzti-guztiek edo Udalak haur eta nerabeentzat lagatuko lokalen batean aritzen diren guztiak irakurri eta sinatu beharko dute gidaliburu hau.

Gidaliburu Pasaia Haur eta Nerabeen Eskubideak Bermatzeko Plangintzan dago kokatuta, eta plan horretan jasotakoari jarraiki, haurren eta nerabeen taldea garrantzizkoa eta oinarrizkoa da udalerraren orainerako eta etorkizunerako.

Hori dela-eta, haurren eta nerabeen garapenean haiengandik gertu dauden helduek (familia, eskola, herria) ezinbestean ziurtatu beharko dute haurrek eta nerabeek euren eskubideen erabilera egiten dutela. Izan ere, adingabeek eskubideak eta betebeharrak dituzte, bermatu eta bete beharrekoak; eta horiek behar fisiko eta materialetatik harantzago, arlo soziala, emozionala eta sexuala hartzen dute barne.

Horrenbestez, Pasaia Udalaren iritzirako, udalerrian adingabeekin diharduten guztiak eta udal-baliabideren bat erabiltzen ari diren guzti-guztiek izan behar dituzte kontuan eskubide horiek. Aldi berean, eginahalak egingo dituzte udalerriko adingabeen ongizatea bermatuta egon dadin.

Horregatik, urte hasiera guztietan Udalak haurren eskubideei buruzko prestakuntza eskainiko die Pasaia udalerrian haur eta nerabeekin lanean hastekoak diren begirale eta hezitzaileei, eta nahitaez jaso beharrekoa izango da.

Eragileek euren eginkizuna egoki betetzeko helburuarekin hainbat jarraibide jasoko dira segidan, eta ezagutu eta ezarri beharrekoak dira, lanean jardunbide egokiak izateko irizpideak direnez.

Esta guía establece un conjunto consensuado de principios y prácticas de trabajo vinculantes para cualquier grupo, asociación y/o entidad que trabaje o se beneficie de ayuda y/o apoyo municipal en Pasaia. En concreto, cada persona que trabaje para un Departamento municipal o en los locales cedidos por el mismo con niños, niñas y adolescentes debe conocer y firmar esta guía al inicio de su actividad.

Esta guía está enmarcada dentro del Plan para garantizar los derechos de la infancia y de la adolescencia en Pasaia. Plan en el que la infancia y la adolescencia son consideradas como colectivo prioritario, y fundamental para el presente y futuro del municipio.

Por este motivo, es necesario que los grupos, asociaciones o entidades que acompañan en su desarrollo (familia, escuela, comunidad, etc.) a los y las menores de edad garanticen, además, el ejercicio de todos sus derechos. Los y las menores de edad tienen derechos y obligaciones, que deben garantizarse y cumplirse. Los derechos y obligaciones van más allá de necesidades puramente físicas o materiales, y abarcan aspectos de lo emocional, lo sexual, lo psicosocial, etc.

En consecuencia, el Ayuntamiento de Pasaia considera que aquellas personas que trabajen con este colectivo y/o utilicen algún tipo de recurso municipal deben tener en cuenta dichos derechos y deben tratar de establecer una relación que garantice el bienestar de las personas menores del municipio.

Es por ello que, periódicamente el Ayuntamiento ofrecerá una formación imprescindible sobre derechos de la infancia a las y los nuevos monitores y/o educadores que se incorporen a trabajar con menores en el municipio de Pasaia.

Con el objetivo de ayudar a dichos agentes a cumplir esta función se recogen a continuación algunas pautas que se considera deben ser conocidas y aplicadas como criterios de buenas prácticas en el trabajo con las personas menores.

Jarraibideak:

1 Pasaiaiko udalerrria eremu segurua izango da, eta bertan haurrei eta nerabeei eskubideak bermatuko zaizkie.

2 Haurrak eta nerabeak gizalegez eta errespetuz trata itzazue.

3 Gatazkak alderdi onetik bidera itzazue, eta adingabekoekin desadostasunak izanez gero, ahoz hitz eginez konpontzen saiatu zaitzete.

4 Jarraibide hauen arabera joka ezazue:

- Hizkuntza zuzen eta egokia erabil ezazue. Horrek esan nahi du hizkuntzaren erabileran baztertu egin behar direla, gehiegikeria, zabarkeria, errespetu falta eta etenik gabeko isekak. Era berean, alde batera utziko dira hizkera sexista, arrazista, homofobia eta/edo xenofobia.

- Izan zaitzete adostaileak. Beste batzuen iritzirako beldurra eragitekoak izan litezkeen ekintzak ez itzazue egin.

- Errespetu ezazue adingabekoaren segurtasun fisikoa eta psikologikoa. Onartezinak eta zigor arlotik salagarriak dira egoera hauek: jazarpen- eta abusu-egoerak, eta sexu-erasoak eta eraso sexistak.

5. Hurrekin eta gazteekin jardutean, nabarmen itzazue alde onak; eta ez kritika, lehia edo konparaketa.

6. Haur edo gazteren bat babesgabezia arriskuan dagoela uste baduzue, ez ezazue pentsa zuen jardunean bakarrik zaudetenik, badago-eta adingabeen arrisku eta babesgabezia egoerarako protokoloa kasu jakinetan erabili beharrekoa dena, adingabekoa egoki babeste aldera.

7. Legearen arabera¹, tratu txarraren susmorik izanez gero, ezinbestekoa da nagusiei eta dagokien agintariei jakinaraztea; eta elkarlanean aritzea, adingabea babestearren.

Pautas a seguir:

1. El Municipio de Pasaia debe constituir un espacio seguro donde se garantice a los niños, niñas y adolescentes que sus derechos serán respetados.

2. Tratad a los niños, niñas y adolescentes con cortesía y respeto.

3. Tratad de gestionar de manera positiva los conflictos y abordarlos de manera directa y asertiva en los casos en que surjan desacuerdos con las personas menores.

4. Actuad según las siguientes pautas:

- Usad un lenguaje correcto y adecuado. Ello implica desterrar el uso del lenguaje abusivo, vulgar, irrespetuoso y los sarcasmos reiterados. Así mismo implica desterrar lenguaje sexista, racista, homóforo y/o xenóforo.

- Sed conciliadores/as. No cometáis actos que otras personas puedan considerar intimidatorios.

- Respetad la integridad física y psicológica de la persona menor. Son inadmisibles y penalmente denunciables las situaciones de acoso, abuso y agresión sexual y sexista.

5. Utilizad el refuerzo positivo antes que la crítica, la rivalidad o la comparación cuando os relacionéis con niños, niñas y adolescentes

6. Cuando creáis que un niño, una niña o adolescente está en riesgo de desprotección, no penséis que estáis solos ante esa situación. Existe un protocolo sobre situaciones de riesgo o de desprotección de personas menores que deberéis seguir en estos casos y para proteger adecuadamente a la persona menor de edad.

7. La ley² establece la obligación de notificar a las autoridades correspondientes cualquier sospecha de maltrato, y la obligación de colaborar para que se proteja a la persona menor.

1 3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa/

2 Ley 3/2005 de 18 de febrero de atención y protección a la infancia y a la adolescencia.

8 Erabiltzaile adingabeak bereziki dira sentiberak, eta askotan eredu gisa hartzen gaituzte. Horregatik, alkoholaren edo drogen eraginpean egonez gero, ez dituzue adingabeak artatuko. Neurri berean,

a) adingabeekin lan egiten duzuenek, ezin dituzue haur eta nerabeei alkoholik, drogarik, tabakorik, edo bideo eta irakurgai desegokirik eman.

b) ezin izango dituzue bultzatu eta erabili teknologia berriak, adingabekoentzako egokiak ez diren gaiak hedatzeko (eduki oldarkorak, sexistak, arrazistak, xenofoboak, sexualak eta/edo pornografikoak).

9. Gazteek eurentzat egokiak diren ordutegiak eta ohiturak bete behar dituzte, betiere, familiek gainbegiratutakoak. Horregatik da zuen ardura Udalak lokalen erabilerarako ezarritako egutegi eta ordutegietara egokitzea. Ezarritakoetatik kanpo, beharrezkoa da guraso eta/edo tutoreen baimena izatea.

10. Gidaliburu hau adingabeekin dihardutenei laguntzeko tresna izango da. Horregatik, egoera edo portaeraren batek gidaliburu hau urratzen duela uste izanez gero, kontaktu egingo diozue zuen erakundeko nagusiari, edo dagokion udal-sailaren arduradunari, **Udalaren jarduteko protokoloan** zehaztutakoa betez.

Orrialde honen oinaldean sinatzeak gidaliburu hau irakurri dudala esan nahi du, eta hortaz, ados nagoela jarraibide hauek betetzearekin, Pasaian haurrekin eta nerabeekin lanean ari naizelako
ELKARTEAN.

Pasaian, 2017ko azaroaren 20an

Sinadura:.....
Elkartearen legezko ordezkaria

8. Las personas menores de edad son especialmente sensibles y las adultas somos sus modelos; por ello, no les atendáis si os encuentran bajo los efectos del consumo de alcohol o drogas. De igual forma deberéis absteneros de:

a.- proporcionar a los niños, niñas y adolescentes tabaco, alcohol y/u otras drogas, vídeos y/o material de lectura inapropiados y

b.- utilizar o fomentar el uso de las nuevas tecnologías en relación a contenidos inapropiados para las personas menores de edad (contenidos violentos, sexistas, racistas, xenófobos, sexuales y/o pornográficos).

9. Las personas menores de edad precisan de un horario y rutinas adecuados a su edad, supervisados por sus familias. Por ello, vuestra responsabilidad con la persona menor debe ajustarse al calendario y a los horarios establecidos en la normativa de uso de locales municipales. Fuera de los mismos, deberéis contar con la autorización expresa de los padres, madres y/o tutores.

10. Esta guía ha de ser un instrumento de ayuda a aquellas personas que trabajéis con menores. Por ello, cuando se os planteen dudas de, si una situación o comportamiento transgrede esta guía, se pondrá en conocimiento de la persona responsable de vuestra entidad, y posteriormente, con el/la responsable del Departamento Municipal que os corresponda, tal y como indica **el protocolo de actuación Municipal.**

Mi firma al pie confirma que he leído esta guía y que, por trabajar con niños, niñas y adolescentes en el municipio de Pasaia, en la **ASOCIACIÓN**.....estamos de acuerdo y nos comprometemos a seguir estas pautas.

En Pasaia, a 20 de noviembre de 2017

Firmado:
La/el representante legal de la Asociación